

Joxe Iriarte, *Bikila*

Egur emaile profesionalak

E

rtzainek erakutsitako profesionaltasuna eta proportzionaltasuna zoriondu nahi dut”. Rodolfo Aresen hitz hauek oso garbi adierazten dute gatazka sozialetan zein aldean lerrokatzen den botere politikoa. Beste hitzekin esanda, zeinentzat lan egiten duen. Hala ere, ez dira lotsatzen “herri osoaren” mesederako jarduten dutela esanda. Dena den, aztertu dezagun hitz horietan dagoena.

Errekalde auzoa inguratu eta Kukutza militarki setiatu ondoren, eraikinean kostatuta ahala kostatuta sartzeko helburu zutenek, logikoa da neurritz jokatu zutelako aldarrikatzea. Nolako helburua halako neurria. Zertarako bestela, tanke eta tresneria guztiez oldartu? Aldiz, Kukutza barruan zein kanpoan ahal zuten moduan erantzun zutenak, Aresentzat eta Azkunarentzat, neurritz kanpo aritu ziren. Hots, erasotua erasotzaile bihurtu nahi izan dute.

NOLAKO PROFESIOA HALAKO JARDUNA.

Badira pertsonen gaixotasunak sendatzea eta bizitza salbatzea helburu duten profesioak –lanbideak–, nahiz eta haien artean hiltzailak ere izan. Gizakiakin esperimentatu zuten sendagile naziak, esate baterako. Militarrek, aldiz (Piris jeneralaren definizioa ontzat emanik) zenbat eta etsai gehiago akabatzea hobe, hori dute helburu, eta horretarako prestatzen dira modu profesionalan, nahiz eta larrialdi garaietan jendea salbatzeko ere aritzen diren.

Profesio guztietan suertatzen da ordezkotza. Polizia, manifestariak jipoitzeaz gain trafikoa zaintzeaz ere arduratzen da. Kontua da zein den profesio bakoitzaren zeregin nagusia. Niretzako garbi dago: armadarena eta poliziarena *statu quo* zaintzea! Jakina, nolako estatua halako polizia! Francoren garaiko polizia eta gaurkoa ez da berdina.

Egunotan Howard Zinn-ek idatzirikoa *Amerikako Estatu Batuen beste historia* irakurtzeko parada izan da. Argigarria, gizakiaren eskubiak eta norbanakoen askatasunaren aldarri ozenaren konstituzio aitazindaria (gobernari txarren aurkako matxinadaren zilegitasuna onartzen duena gainera) nola historian zehar



DANI BLANCO

manipulatua izan den oligarkiaren jabetza pribatuaren alde. Nola independentziaren alde borrokatzeko sortutako armada, eta gizartearen zaintzeko milizia, guardia nazionala eta polizia, zein garaiz jarri zuten (jatorrizko amerikarrak sarraskitzeaz gain) beltzen pobreen eta langileen erreboltak sarraskitzen.

MOZORROAK. Diktaduretan ez bezala, zuzenbideko (omen) estatuetan, polizien aurpegiak moztuz estaltzeaz gain, beren zeregin moztuz saiatzeko dira. Alegia, leloa bihurtu da polizia hiritarrak “gaizkileengandik” (jakina, gaizkile arriskutsuenak, goi-mailako jendilajeak, ia ukiezina dira) babesteko dela. Gurean, “bertakoak” ildo horretatik jo du

Ertzaintza izena hartu duenean. “Besteak” “nazionala” edo “zibila” deituak nolabait (alegia, militarra ez omen dena nahiz eta militarki antolatua izan), moztuz bai baina ez dute moztuz beharrik. Egia esanda, ez dira berdinak, baina, zoritxarrez, geroz eta antzekoagoak. Duela bi urte Urbinan jaso genuen egurra oraindik bizirik dute gogoa!

Kukutzakoak gaizkileztat hartuak izan dira (ez badute hain garbi esan) beraiena ez zen jabetza ilegalki okupatu zutelako. Jabetza pribatua, horra hor gako! Sozialismo erreala desagertu zenetik –berean jabetza publiko nagusia eta babestua da– estatuek esku gutxitan pilotzen den jabetza pribatua zaintzea dute helburu nagusia. Izan ere, ez gaitez en gaina, jabetza pribatu guztiak ez daude berdin babestua. Instituzioak ez dira hain fin ibiltzen jabetza txikiak desjabetu behar dituztenean. AHTren kasu lurren nagusien gainetik pasa dira hondeamakinak Ertzaintzak babesturik!

Kukutza auzian inork ez du ukatu nagusiak bere eskubidea zuela, baina gutxi argitu dute jabetza horren gainbalioa *pelotazoaren* traza zuten birkalifikazio baten bidez lortu zela. Eta Udalak, nahi izanez gero, bazuen egoera aldatzeko eskumenik, baita dirurik ere. Injustizia baten gainean beste bat pilatu da. Eta Ertzaintza, hori dena estaltzeko erabilia izan da. ■



Profesio guztietan suertatzen da ordezkotza. Polizia, manifestariak jipoitzeaz gain trafikoa zaintzeaz ere arduratzen da. Kontua da zein den profesio bakoitzaren zeregin nagusia